

PRENTSAURREKORAKO IDATZIA

Esan digute zaborra ahalik eta gutxiena sortu behar dela. Komeni dela tresnak, jostailuak eta gainontzeko gauzak behin eta berriz erabiltzea, hartara probetxu hobea ateratzen zaiela eta ez dugula hainbeste hondakin sortzen. Esan digute bota beharrekoak koloretako ontzietan botatzeko, ondo bereizita. Eta kolorez apaindu ditugu hondakinak: marroia, horia, urdina, berdea. Gauza bakoitza bere tokian. Nahastu gabe.

Hitz potoloak esan dizkigute: birziklatu eta konpostatu bezalakoak. Eta ikasi dugu zer diren. Orain badakigu usteltzen diren hondakinekin lurrerako ongarria egin daitekeela. Eta badakigu paperetik berriz paper erabilgarria sortzen dela, eta plastikotik plastikoa. Hori guztia erakutsi digute. Eta guk ikasi. Zentzuzkoa dirudi.

Etorri da atez ateko bilketa Usurbila, eta hasieran kezkatuta sumatu dugu jende heldua. Baina gaur lasaiago antzematen ditugu: erraza da gauza bakoitza bere tokian jartzea, eta nahastu gabe etxe ondotik jasotzea.

Baina, aldi berean, esaten ari zaizkigu errausgailu bat egin behar dutela gure lurretan, zaborra erretzeko fabrika handi bat. Artzabaletako erreka gain-gainean egin behar dutela. Eta esan digute toki askotako zaborrak inguru honetara ekarri eta erre egingo dituztela. Eta ke beltza botako dutela labe handiek, etengabe. Eta arnastuko dugun airea ez dela hain garbia izango. Eta landuko dugun lurra ez dela hain sana izango. Eta nekez jango ditugula gure barazkiak. Eta ezin dugu ulertu! Ez al genuen ba birziklatu eta konpostatu behar?

Ez dugu ulertzen eta haserre gaude, ez zaigulako fundamentuzkoa iruditzen.

Horregatik eskatzen diegu helduei ez dezatela txorakeriarik egin eta joka dezatela zentzuz. Aire garbia arnastu nahi dugula eta lur sana landu nahi dugula. Ez dugula ke beltzik nahi, kolore biziz apaindutako ingurunea baizik.

Horregatik, dei egiten diegu gazte guztiei, eta beren gurasoei, datorren azaroaren 28ko manifestaziora joan daitezen. Hantxe izango gara gu ere.